



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

FAQ. Arabako udalen egoitza elektronikoa

2014ko maiatzaren 21a



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

AURKIBIDEA

| | |
|---|---|
| 1. Zer da egoitza elektronikoa? | 2 |
| 2. Nork erabil dezake? | 2 |
| 3. Balio bera dute egoitza elektronikotik egindako kudeaketek eta bertatik bertara egindakoek?..... | 2 |
| 4. Segurua da egoitza elektronikoko zerbitzuak erabiltzea? | 2 |
| 5. Zer da sinadura elektronikoa? | 2 |
| 6. Zer da ziurtagiri elektronikoa? | 2 |
| 7. Zer ziurtagiri erabil ditzaket? | 3 |
| 8. Zer baldintza tekniko bete behar ditu nire ordenagailuak? | 3 |
| 9. Zer araudi aplikatu behar zaio egoitza elektronikoari? | 3 |

1. Zer da egoitza elektronikoa?

Egoitza elektronikoa Interneteko gune bat da. Gune horretatik administrazio izapideak egin, espedienteen egoera kontsultatu eta jakinarazpen elektronikoak jaso daitezke era telematikoan.

2. Nork erabil dezake?

Udalarekin Interneten bidez harremanetan jarri nahi duten herritar guztiek, baldin eta ziurtagiri digital aintzatetsirik badute.

Egoitza Elektronikoa urteko 365 egunetako 24 orduetan egongo da erabilgarri. Udaleko egun baliogabeen indarreko egutegia kontuan hartuta, egun baliogabe batean egindako izapideak hurrengo egun baliodunear egin direla ulertuko da.

3. Balio bera dute egoitza elektronikotik egindako kudeaketek eta bertatik bertara egindakoek?

Bai, telematika bidez aurkeztutako espediente bakoitza udalaren sarrera erregistroan erregistratuta geratzen da, eta interesdunari egindako aurkezpen telematikoaren egiaztagiria erakusten zaio.

4. Segurua da egoitza elektronikoko zerbitzuak erabiltzea?

Bai, egoitza elektronikotik udaleko sistemetara doan informazio oro zifratuta dago. Gainera, aintzatetsitako ziurtagiri digitalaren bidez egiaztatzeari esker, bermatuta dago zuk, zeure espedienteen interesduna zaren aldetik, bakarrik ahal duzula izapideetako informazioa sartu.

5. Zer da sinadura elektronikoa?

Sinadura elektronikoa datu multzoa da, eskuz egindako sinadura balitz bezala sinatzailea identifikatzea ahalbidetzen duena.

Udalak zein zeuk egoitza elektronikoa erabiliko duzuen ziurtagiri digital aintzatetsia duen sinadura elektronikoak honakoak bermatzen ditu sinatutako agirien segurtasunaz gain: sinatutako jatorrizko agiriak ez duela geroztik aldaketarik izan, hori horrela izanez gero, baliozkotze okerra emango bailuke eta baztertua izan.

6. Zer da ziurtagiri elektronikoa?

Ziurtagiri elektronikoa ziurtapen agintaritza batek emandako eta sinatutako agiria da, pertsona bat (fisiko edo juridikoa) identifikatu eta gako pare batekin lotzen duena.

Ziurtagiri batean honako informazioa dago:

- Ziurtagiriaren titularraren identifikazioa (titularraren izena, IFZ, helbide elektronikoa ...)
- Ziurtagiriaren ezaugarriak: serie zenbakia, ziurtagiria eman zuen erakundea, emate data, ziurtagiriaren balio epea eta abar.
- Gako pare bat: publikoa eta pribatua.
- Ziurtagiriaren sinadura elektronikoa, ziurtapen agintaritzaren (ZA) klabearrekin.

7. Zer ziurtagiri erabil ditzaket?

Egoitza elektronikoa onartutako ziurtagiriei buruzko informazio guztia oinaldeko [Baldintzak](#) atalean dago eskuragarri.

8. Zer baldintza tekniko bete behar ditu nire ordenagailuak?

Udalaren egoitza elektronikora behar bezala sartu ahal izateko betekizun teknikoak buruzko informazio guztia [Baldintzak](#) orriaren oinean daude.

9. Zer araudi aplikatu behar zaio egoitza elektronikoa?

Batez ere, ekainaren 22ko 11/2007 Legeak, herritarrek zerbitzu publikoetan sarbide elektronikoa izateari buruzkoak, arautzen ditu egoitza elektronikoa. Era berean, elkarreragingarritasunari, segurtasunari eta abarrei buruzko hainbat lege garapen eman dira.

Gainera, egoitza elektronikoa bakoitzak bere araudia izan behar du egoitzaren izena, egun baliodunen egutegia edo horrelako gaiak jorrazteko. Gainera, egoitza elektronikoa bakoitzak bere araudia izan behar du egoitzaren izena, egun baliodunen egutegia edo horrelako gaiak jorrazteko. Arabako udalen kasuan, udal bakoitzak Arabako Foru Aldundiarekin sinaturiko hitzarmenean dago araudi hori. Aipatutako hitzarmen ereduak Diputatuen Kontseiluaren abenduaren 14ko 818/2010 Erabaki bidez onartu zen.